

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Usainen memoria

AITZURRA dantzatzeari utzi eta neroni dantzatzeraz jaitsi naiz jaietara. Eta giroak bero direneta usainak are eta nabarmenago. Aspaldi ikusi gabe eta hurbiltzen zaizunarena eta, zer esanik ez, dantzarako heltzen dizun horrena... Beroak usainak ere harrotu egiten ditu.

Landare usainzaleak urteko luzeenak diren egun hauetan du bere aintza beteko une gorena. Geranio eta zaingorri basak, ezkaikak, mendak, erromeroak... puri-purian daude, gailurrean. Arrats beroetan nabarmena da: egun-argia paltaltzean sudurrarekin ikusten da.

Edertasuna handitasunarekin nahasten duen kultura batekoak izaki, aspaldi galduak ditugu gure amonen amonen sudurrek ikusitako makina bat landare. Gure herrian sekula izan den txerri-hiltzaile ezagunak, Gazatañagako Demetrio "Zerri" zenak, ahoan tabakoa ibiltzen omen zuen. Mingaina loak har ez zezan, seguru asko. Baina belarri gainean beti krabelina. Belarritik sudurrerako zubi, krabelina (*Dianthus caryophyllus*). Beti. Etengabe lurrinetan.



Viola reichenbachiana, bioleten espeziekoa.

Edertasunaren tamaina alde batera utzi eta sudur haienak bizitzeko asmotan, gero eta atari eta lore baratze gehiagotan ari naiz usaina ardatz nagusi duten lore-joko eta bilduma bereziak sumatzen. Zaingorri baskak, *Geranium* eta *Pelargonium* generoetakoak, eta mendek, *Mentha*-tarrek, bolada alde dute. Bolada gorabehera bizi beharra ere ez da samurra izango.

Lurrinak ere holaxe ibiltzen dira, boladen arabera. Haize-boladak errenditzen ditu jendearen lepo aldeetako lurrinak sudurretara. Baina lepoan izateko boladan behar. Boladaka zaharra berritu egiten da. Etsita, ahaztu ezinaren ezinez memoriaren sekula betiko zokora baztertuak nituen usainetako lurrinak berritu zaizkit dantzan. Aspaldiko partez, bioletarena (*Viola* sp.) edota patxuliarena (*Pogostemon cablin*) bezalako usain bortitzen laino trinkoetan ibiltzea tokatu zait. Berrituta, besteak halako bi gaztetuta zebiltzan gure edadeko neskek eta mutilak: haien boladako lurrinak boladara ekarriz eta dantzan.



Udako hazia

Barazki gutxi batzuk besterik ez dira udaberrian loratzen. Gehienek uda beroa nahiago dute. Udazkenean hazi eta neguan eta udaberrian, bere onenean, otorduak ederki gozatu dizkigutenak badira. Zer arraio egingo genuke tipula (*Allium cepa*), porrua (*Allium porrum*) eta baratxuria (*Allium sativum*) gabe? Onenean izatetik onenak ematera: udaberriaren amaian tontortu, garatu eta gararen muturrean egundoko loretzarra ireki. Lore horietatik etorriko dira hurrengo sasoirako haziak. Hiruren loreak bikainak, politikak, galantak dira. Baratzeetan bezala ikusgarri daude lorategietan. Argazkikoa baratxuria da. Ahorako bezainbat gustatzen zait begirako. Zuri?

